**ERRENTERIA UDALA**
Gizarte Zerbitzuak / Servicios Sociales

Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2026/1260
Data / Fecha 2026/05/05
DEKRETUA / DECRETO

**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2025SDBD0047
**Gaia/**Asunto**:** 7.3. DIRU-LAGUNTZA LERROA: ERRENTERIAKO ERRETIRATUEN 8 ELKARTEEN EKINTZA PROGRAMA. 2026-2027 IKASTURTEA / 7.3.: PROGRAMA DE ACTIVIDADES A DESARROLLAR EN LOS 8 CLUBES MUNICIPALES DE PERSONAS JUBILADAS DE ERRENTERIA. CURSO 2026-2027.
**Eskatzailea/**Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)/**DNI(NIF)**:** P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

## DEKRETUA

### AURREKARIAK

Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorrak, azaroaren 17koak, xedatzen du tokiko udalbatzek dirulaguntzen oinarri arautzaile egokiak ezartzeko beharra.

Araudi hori aplikatzeko, Udalak onartu du Errenteriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO).

2025eko azaroaren 19ko 3249 zenbakiko Alkatetza dekretu bidez, Errenteriako Udalak 2026 urtean eta 2026-2027 ikasturtean zehar dirulaguntzak emateko Oinarri Orokorrak onartu dira.

Erabaki honetan arautzen eta deitzen diren dirulaguntzak Udalaren 2024-2027rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan bilduta daude.

Dirulaguntza honetarako dagoen aurrekontua 89.000€koa da eta 2025eko eta 2026ko aurrekontuen kontura joango da:

1.0730.481.02.231.70 2026 Erretiratuen elkarteei diru-laguntzak (zorpeko zkia: A-99) : 71.200 €.

5.0730.481.02.231.70 2027 Erretiratuen elkarteei diru-laguntzak (zorpeko zkia.A-05-1502): 17.800.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza onartzearen aldekoak.

## DECRETO

### ANTECEDENTES

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece la necesidad de que las corporaciones locales establezcan las oportunas bases reguladoras para el reparto de subvenciones.

En aplicación de esta normativa el Ayuntamiento de Errenteria ha aprobado la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015).

Mediante Decreto de Alcaldía n.º 3249 de 19 de noviembre de 2025 se han aprobado las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026 y el curso 2026-2027.

Las líneas de subvención cuya regulación y convocatoria es objeto del presente acuerdo, están incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento 2024-2027.

La disponibilidad presupuestaria para esta subvención es de 89.000 € e irá a cargo de las partidas de los presupuesto de 2026 y 2027:

1.0730.481.02.231.70 2026 Subvenciones Clubes de personas jubiladas: (contraído A-99) 71.200 €.

5.0730.481.02.231.70 2027 Subvenciones Clubes de personas jubiladas: (contraído A-05-1502) 17.800 €.

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables a la aprobación de la subvención.

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

Gizarte Zerbitzuetako Teknikariak, 2026ko urtarrilaren 13an emaniko txostena.

Ordezko kontuhartzaileak 2026ko maiatzaren 04ean espedientea fiskalizatu du.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak emandako eskumenez baliatuta, eta Udal Aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

**EBATZI DUT**

**1.- ONARTZEA "7.3. Errenteriako erretirodunen zortzi elkarteen ekintza programa" izeneko diru-laguntza lerroaren deialdi publikoa, 2026-2027 ikasturterako.** Oinarri espezifikoak ebazpen honen eranskinean jaso dira, eta deialdi hau arautuko duten diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorrekin bat etorriz.

2.- **BAIMENTZEA** 89.000,00 euroko gastua 2026 eta 2027 urteetako Udal Aurrekontuaren hurrengo partiden kontura:

71.200€ 1.0730.481.02.231.70 2026 partidaren kargura (zorpekoa A-99) eta 17.800€ 5.0730.481.02.231.70 2027 (zorpekoa A-05-1502) partidaren kargura.

3.- Ebazpen honen **BERRI EMATEA** Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran.

4- Deialdi hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Gizarte Zerbitzuetako delegatua

Informe del técnico de Servicios Sociales emitido con fecha 13 de enero de 2026.

La interventora suplente con fecha 04 de mayo de 2026 ha fiscalizado el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por la Asesora Jurídico municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

**RESUELVO**

**1.- APROBAR la convocatoria pública de la línea de subvención "7.3: Programa de actividades a desarrollar en los ocho clubes de personas jubiladas de Errenteria", para el curso 2026-2027,** cuyas bases específicas se recogen como anexo a la presente resolución y de conformidad con las Bases Generales para la concesión de subvenciones que regirán la presente convocatoria.

2.- **AUTORIZAR** el gasto de 89.000,00 euros con cargo a las siguientes partidas del Presupuesto Municipal del año 2026 y 2027:

71.200€ a la partida 1.0730.481.02.231.70 2026 (contraído A-99) y 17.800 € a la partida 5.0730.481.02.231.70 2027 (contraído A-05-1502)

3.- **DAR CUENTA** de la presente resolución al Pleno municipal en la siguiente sesión ordinaria.

4- Publicar la presente convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Errenteria, en la fecha de la firma

La delegada de Servicios Sociales

Stua/Fdo.: Naroa Zabala Cía

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

**ERANSKINA** / ANEXO

**7.3. DIRU-LAGUNTZA LERROA: ERRENTERIAKO ERRETIRATUEN 8 ELKARTEEN EKINTZA PROGRAMA. 2026-2027 IKASTURTEA. OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

**1. - Diru-laguntzaren xedea.**

Lerro honen xedea da diru-laguntzak ematea, hain zuzen ere, herrian kokaturik dauden erretiratuen elkarteei, prebentzio, kultura eta aisialdi arloetako jarduerak garatzeko 2026-2027 ikasturtean.

**2.- Diru laguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren diru-laguntzen gehienezko kopurua.**

2026 eta 2027 ekitaldietako urte anitzeko diru-laguntza lerro honetarako dagoen aurrekontua guztira, 89.000€koa da, 2026 eta 2027 urteetako aurrekontuen artean honela banatua:

1.0730.481.02.231.70 2026 Erretiratuen elkarteei diru-laguntzak: 71.200 €.

5.0730.481.02.231.70 2027 Erretiratuen elkarteei diru-laguntzak: 17.800 €

Diru-laguntzaren diru kopuruak ezingo du inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere.

**LINEA DE SUBVENCIÓN 7.3.: PROGRAMA DE ACTIVIDADES A DESARROLLAR EN LOS 8 CLUBES MUNICIPALES DE PERSONAS JUBILADAS DE ERRENTERIA. CURSO 2026-2027. BASES ESPECÍFICAS.**

**1. - Objeto de la subvención.**

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones a los asociaciones de Personas Jubiladas para el desarrollo de actividades de carácter preventivo, cultural y lúdico durante el curso 2026-2027.

**2. - Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención plurianual que abarca los ejercicios de 2026 y 2027 asciende a 89.000€ repartidas entre los presupuestos de 2026 y 2027 de la siguiente manera:

1.0730.481.02.231.70 2026 Subvenciones Clubes de personas jubiladas: 71.200 €

5.0730.481.02.231.70 2027 Subvenciones Clubes de personas jubiladas: 17.800 €

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de cuantía superior al coste de las actividades subvencionadas, bien sea aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos.

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

Erretiratuen elkarte bakoitzak ikasturte bakoitzeko eskaera bakar bat egin dezake.

Cada asociación de personas jubiladas solo puede hacer una solicitud por cada curso anual.

**3.- Diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta pertsona onuradunak.**

**3.- Requisitos para solicitar la subvención y personas beneficiarias.**

Diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute herriko erretiratu etxeetako zortzi elkarteek:

1.- Alabergako “LA MAGDALENA” erretiratuen elkartea

2.- Agustinetako “SAN AGUSTIN” erretiratuen eta pentsiodunen elkartea

3.- Beraungo “BIENVENIDO” erretiratuen eta pentsiodunen elkartea

4.- Gabierrotako “LAGUNTASUNA” erretiratuen elkartea

5.- Galtzarabordako “EL PARQUE” erretiratuen elkartea

6-. Kaputxinoak “SAN JOSÉ” erretiratuen eta pentsiodunen elkartea

7.- Olibeteko “BETI BIZKOR” erretiratuen eta pentsiodunen elkartea

8.- Pontikako “ARRAMENDIPE” erretiratuen eta pentsiodunen elkartea

Podrán optar a las subvenciones las ocho asociaciones de Personas Jubiladas ubicadas en los clubes municipales:

1.- Asociación de personas Jubiladas de Alaberga “LA MAGDALENA”

2.- Asociación de personas Jubiladas de Agustinas “SAN AGUSTIN”

3.- Asociación de personas Jubiladas de Beraun “BIENVENIDO”.

4.- Asociación de personas Jubiladas de Gabierrota “LAGUNTASUNA”

5.- Asociación de personas Jubiladas de Galtzaraborda “EL PARQUE”

6.- Asociación de personas Jubiladas de Kaputxinos “SAN JOSÉ”

7.- Asociación de personas Jubiladas de Olibet “BETI BIZKOR”

8.- Asociación de personas Jubiladas de Pontika“ARRAMENDIPE”

Aurkeztutako proposamen guztietan onuradunak erretiratuen 8 elkarte horietako bazkideak izango dira, haietako bakoitzaren baldintzak kontuan harturik.

Las personas beneficiarias serán, los socios y socias pertenecientes a alguno de los citados 8 Clubes de personas jubiladas y de acuerdo a los requisitos propios de cada uno de ellos.

Erretiratuen elkarte bakoitzak dirulaguntza jaso ahal izateko, udal Gizarte Zerbitzuetako departamentuko erretiratuen elkarteen dinamizazio egitasmoaren partaide izan beharko dute.

Las asociaciones de personas jubiladas para acceder a la subvención, tienen que ser parte del programa de dinamización de los clubes de jubilados promovido por el departamento de Servicios Sociales municipal.

**4.- Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

**4.- Documentación a presentar con la solicitud:**

Elkarte bakoitzeko eskaera bat bakarra hartuko da

Por cada entidad o asociación, se tendrá en cuenta

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

kontuan. Eskaera hori udalak onartutako eredu normalizatu batean aurkeztu behar da.

una única solicitud. Dicha solicitud hay que presentarla en el modelo normalizado aprobado por el Ayuntamiento a tal efecto.

Eskatzaileek Errenteriako Udalak 2026 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko oinarri orokorren seigarren klausulan adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengoa ere aurkeztu behar dute:

Los solicitantes deberán presentar, además de la documentación establecida en la clausula sexta de las bases generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026, la siguiente documentación:

- 7.3. Dirulaguntza lerroko eskaera orria (aurreikusitako jarduera bakoitzeko fitxarekin batera).

Solicitud de la línea 7.3. de subvención (incluida la ficha por cada actividad programada).

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberán aportar los documentos acreditativos exigidos en la convocatoria.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social

Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias

Foru-ogasunak - Kontu-mailaren kontsulta

Diputación Foral de Gipuzkoa – Consulta de Nivel de Cuentas

**5.- Eskaerak aurkezteko epea.**

Diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea irekiko da 2026ko ekainaren 15an eta uztailaren 10an amaituko da. Epe barruan aurkeztutako eskaerak bakarrik onartuko dira.

**5.- Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención estará abierto desde el día 15 de junio hasta el 10 de julio del 2026. Solo se aceptarán las solicitudes presentadas dentro del plazo.

**6.- Eskaerak baloratzeko eta zenbatekoa esleitzeko irizpideak.**

Erretiratuen elkarte bakoitzari esleitutako diru-laguntza

**6.- Criterios de valoración de las solicitudes y asignación de la cuantía.**

El importe de la subvención adjudicada a cada

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

ondoko irizpideen bitartez zehaztuko da:

**1.** Guztira, 16.000 €, ekarpen finko gisa: 2.000 €-ko kopuru finkoa erretiratuen elkarte bakoitzarentzat, mantentze- eta material-kontzeptuagatik.

**2.** Guztira 73.000€ ko zenbatekoa, ondorengo baldintzen arabera banatuko dena:

- %30a (guztira 21.900 €) elkarte bakoitzaren bazkide kopuruaren arabera banatuko da.

Bazkide kopurua zehazteko, urte horretako urtarrilaren 1ean elkarte bakoitzak ematen dituen datuak hartuko dira kontuan.

Pertsona berbera ez da inondik inora kontabilizatuko elkarte batean baino gehiagotan. Pertsona bat elkarte batzuetako bazkide izanez gero, zein elkartetan agertu nahi duen aukeratu beharko du.

- %70a (guztira 51,100 €) elkarte bakoitzak proposatzen dituen prebentzio, kultura eta aisialdiko jarduera-motaren arabera bideratuko da.

Puntuazioa jardueraka ematen denez gero, diru-laguntza eskatzen den ikasturteko proiektuetan ageri diren jarduerak hartuko dira aintzat.

Ikasturtean garatzen diren prebentzio edota kultura arloko ohiko jarduerei dagokienez (astero, gutxienez, bi orduko jarduerak badira), 10 puntu emango dira gehienez, kontuan hartu gabe zenbat taldek egiten duten jarduera hori.

Iraupen txikiago duten prebentzio edota kultura arloko jarduerak proportzionalki puntuatuko dira: astero,1’5 ordutako jarduerak 7’5 punturekin eta  astero ordu beteko jarduerak 5 punturekin.

Aisialdi jarduerei dagokionez astero egiten direnak, 10

asociación de personas Jubiladas vendrá determinado por estos conceptos:

**1.** Un total de 16.000 € en concepto de aportación fija: una cantidad fija de 2.000€ para cada Asociación de personas jubiladas en concepto de mantenimiento y material.

**2.** Un total de 73.000€ en aportación variable que se repartirá según los siguientes criterios:

- Un 30% (en total 21.900€) dependiendo del número de personas socias de cada asociación .

El número de personas socias vendrá determinado por los datos aportados por cada asociación con fecha 1 de enero del año en curso.

En ningún caso se contabilizará a una misma persona en más de una Asociación. En el supuesto que una misma persona sea socia de varios asociaciones, deberá elegir una de ellas.

- Un 70% (en total 51.100€) se distribuye según el tipo de actividades que propone realizar cada asociación : actividades preventivas, culturales y lúdicas

Al asignar la puntuación por actividades, se tendrán en cuenta las que figuren en los proyectos a realizar durante el curso para el que se solicita la subvención.

Cada actividad preventiva y/o cultural que se desarrollan de forma habitual a lo largo del curso, con una intensidad mínima de 2h/semanales, tendrá una puntuación máxima de 10 puntos, independientemente del número de grupos que realicen la actividad.

Las actividades preventivas y/o culturales que tengan una intensidad inferior se puntuarán de manera proporcional: las actividades con una intensidad de 1’5 h/ semanal 7’5 puntos, las actividades con una intensidad de 1 h/semanal 5 puntos.

Las actividades lúdicas si se realizan con una

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

punturekin baloratuko dira.

Aldiz, hilero edo hamabostean behin eginez gero, gehienez, 5 puntu eta unez unekoak diren jarduera edo saio bakoitzari 0,5 puntu emango zaio.

Ateak zabalduz egitasmoan parte hartzea 10 punturekin baloratuko da.

frecuencia semanal obtendrán 10 puntos.

Si la periodicidad fuera mensual o quincenal 5 puntos y si son puntuales obtendrán 0,5 puntos por actividad o sesión.

La participación en la actividad de Ateak zabalduz, se puntuá con 10 puntos.

**XEDAPEN ZUZENTZAILEA**

Urte baten eta aurrekoen arteko diru-laguntzetan alde nabarmenik egon ez dadin, adierazle zuzentzailea ezarriko da, ez dadin egon aurreko urtea baino 400 € gehiago jasoko duen elkarterik.

Halaber, aurreko ikasturtean baino kopuru txikiagoa egokituz gero, gehienez, 500 euroko murrizketa egingo da.

Aipatu irizpideak aplikatu ondoren, eman beharreko diru-laguntzen kopuru osoa, aurrekontuan dagoenarena baino handiagoa bada, honela jokatuko da:

1.- Gehiegizko kopuru hori, diru-laguntzaren zenbatekoa handitu zaien elkarteen artean zatituko da, elkarte horietako bakoitzari proportzionalki dagokion murrizketa eginez.

2.- Diru-laguntza lerroari egokitutako aurrekontua guztiz agortu ezean, soberakina aurreko urteko kopurua baino txikiagoa egokitu zaien elkarteen artean banatuko da, elkarte horietako bakoitzaren zenbatekoa proportzionalki handituz.

**DISPOSICIÓN CORRECTORA**

Al objeto de que las diferencias entre la subvención a percibir en un año no suponga diferencias notables con respecto a las cuantías percibidas en cursos anteriores, se plantea un índice corrector, para que ninguna Asociación perciba más de 400€ con respecto al curso anterior.

Así mismo, si la cuantía a percibir es inferior al curso anterior se aplicará una reducción máxima de 500€.

Una vez aplicados estos criterios, si resultara que la suma de las cuantías a conceder superan la disponibilidad presupuestaria, se procederá de la siguiente forma:

1.- El exceso de cuantía se dividirá entre las Asociaciones que tengan un incremento y se reducirá de manera proporcional.

2.- En el supuesto de que no se agote el presupuesto asignado a esta línea de subvención, el sobrante se dividirá entre el número de Asociaciones que tengan una subvención menor que el año anterior y se incrementará de manera proporcional.

**7.- Diru-laguntza ordaintzea.**

Balorazioaren ondoren esleitutako zenbatekoa honela ordainduko da:

71,200 €, ikasturtearen hasieran, proiektuen balorazioaren arabera, erretiratuen 8 kluben artean.

Ordainketa ikasturte hasieran egingo da.

**7.- Abono de la subvención.**

El importe asignado tras valoración se abonará de la siguiente manera:

71.200 € al inicio del curso, repartidos en función de la valoración de los proyectos, entre los 8 clubes de personas jubiladas.

Este abono se realizará al comienzo del curso.

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

17.800 €, proiektuen zuriketaren arabera banatuak, erretiratuen 8 kluben artean, egindako gastuaren justifikazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

17.800 € repartidos en función de la justificación de los proyectos, entre los 8 clubes de personas jubiladas, tras la presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

**8- Diru-laguntzaren justifikazioa.**

Dirulaguntzaren zuriketa 2027ko ekainaren 15 a baino lehenago aurkeztu beharko da udal Gizarte Zerbitzuetako departamentuan.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2026 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko oinarri orokorren hemezortzigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

.- Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza: egindako ekintza eta parte hartu duen bazkide kopurua.

Proiektuko jardueraren bat burutu ezean, betiere beste jarduera batekin ordezkatu ez bada, onartutako aurrekontutik dagokion kopurua kenduko zaio eta, era berean, jarduera horregatik emandako puntuei dagokien zenbatekoa kenduko zaio. beti ere zuritutako kopurua emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada. Ateak Zabalduz egitasmoan parte hartu ezean, jarduerari dagokion zenbatekoa kenduko da, bai ala bai, diruz lagundu nahi den zenbatekotik,.

.- Ateak Zabalduz bezalako ekimen bateratuetan izandako parte hartzea, bileretara joatea eta aurreikusitako ekintzetan elkarte bakoitzeko bazkideen parte hartzeaz informatzen duen txostena.

**Ohar garrantzitsua:** deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2026 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko oinarri orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

**8.- Justificación de la subvención.**

La justificación de la subvención deberá presentarse en el departamento de Servicios Sociales antes del 15 de junio de 2027.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoctava de las bases generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026:

.- Memoria detallada de las actividades subvencionadas, donde se especifique actividad realizada, nº de socios y socias participantes.

En el caso que no se realice alguna de las actividades presentadas en el proyecto y que no haya sido sustituida por otra nueva actividad, se le restará del presupuesto aprobado la correspondiente cuantía y se le restará igualmente la cuantía correspondiente a los puntos otorgados por dicha actividad, siempre y cuando, el gasto total justificado sea inferior a la subvención otorgada. Unicamente, se restará automáticamente de la cuantía propuesta a subvencionar, en caso de no participación, la cuantía correspondiente a la actividad de Ateak Zabalduz.

.- Informe sobre la participación en actividades conjuntas Ateak Zabalduz, asistencia a reuniones y participación de las personas socias de cada Asociación en las actividades programadas en la misma.

**Nota importante:** esta convocatoria deviene de las bases generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.

ESKU77f6165c-5618-4b63-86c9-4ac998ca2b98

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2025SDBD0047-DEKRETUA/DECRETO (ERRENTERIAKO UDALA) |

**Digitalki sinatua:**

**PO Naroa Zabala**
**Zinegotzi delegatua**
**Data:** 2026/05/05 10:00:49